

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Durrumako SR-3 egikaritze unitatearen ituntze batzarraren estatutuen proiektuari

Alkatearen irailaren 9ko 2025/176 Dekretuaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Durrumako SR-3 egikaritze unitatearen ituntze batzarraren estatutuen proiektuari.

Espedientea hogeit egunez jendaurrean jarri ondoren, 2025eko irailaren 17ko ALHAOn (105. zk.) argitaratuta eta jarduketa sistemak eragindako jabe guztiei banan-banan jakinarazita, ez da alegaziorik aurkeztu. Horiek horrela, Donemiliagako Udalak, Alkatearen urriaren 22ko 2025/218 Dekretuaren bidez, behin betiko onetsi zuen Durrumako SR-3 egikaritze unitatearen ituntze batzarraren estatutuen proiektua.

Hori guztia aditzera ematen da, Hirigintzako kudeaketaren Arautegiak, abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, 162.4 artikuluan xedatzen duena betez.

Erdoñana, 2025eko urriaren 23a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO